

Ekainak 15, Zahartzaroan abusua eta tratu txarrak Kontzientziaz Hartzeko Mundu Eguna

GURUTZE GORRIAK ADINEKOEN AURKAKO TRATU TXARRAK DESAGERRARAZTEKO LAN EGITEN DU

- **Infantilizazioa, eskubideen murrizketa edo autonomiarekiko, askatasunarekiko edo gaitasunekiko errespeturik eza dira adinekoei ematen zaien tratu desagokiaren adibide ohikoenetako batzuk.**
- **Gurutze Gorriak, Emakunderekin eta Murgiberekin batera, 'Sare Morea' proiektua jarri zuen martxan 2019an, Euskadin adineko emakumeen aurkako indarkeria identifikatu, prebenitu eta desagerrarazten laguntzeko.**

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 11. Adinekoen tratu txarrak mundu osoko milioika adinekoen osasunari eta giza eskubideei eragiten dien gizarte-arazoa da. Beraz, gizarte osoaren arreta eta erantzuna merezi duen gaia da, biztanleriaren sektore horren hurbilenerako eremutik hasita, indarkeria-mota hori ez dagoen bizikidetzak sustatzeko.

Horren lekuko da OME, adierazten baitu **munduan 6 adinekoetatik batek tratu txarren bat jasaten duela, bere adinari zuzenean lotuta.**

Gainera, COVID-19ren ondorioz sortutako krisi sanitario, sozial eta ekonomikoak asaldura larriak eragin ditu gure bizitzan eta gure bizikidetzak eremuan. Tratu txarren egoera asko larriagotu egin dira, eta, une honetan, adineko pertsona gehiago daude abusu, zabarkeria edo tratu txarrak jasateko arriskuan.

Adinekoen aurkako tratu txarrak, beraz, lehen mailako arazoa dira gure gizartean. Honela defini dezakegu adinekoen aurkako tratu txarra: "Nahita egindako edozein ekintza (hau da, ustekabekoa ez dena), adineko pertsona bati kaltea eragin diezaiokeena edo adinekoari bere ongizaterako beharrezkoa den arreta kentzen dion edozein omisio, bai eta bere eskubideen urraketa oro ere"; hau da, ez gara eraso fisiko batez bakarrik ari, ezta 'etxeko' gertakari isolatu batez ere. Fenomeno sozial bat da: senideek etxean egiten dituzten eraso kaltegarrienak, profesionalek adinekoei egin diezazkieketen zabarkeriak eta omisioak,

abandonua edo burujabetasuna, edo gizartean adinekoei eskaintzen zaien irudi gutxiesgarria.

Infantilizazioa, eskubideen murrizketa edo autonomiarekiko, askatasunarekiko edo gaitasunarekiko errespeturik eza dira adinekoei ematen zaien tratu desagokiaren adibide ohikoenetako batzuk.

Gurutze Gorriak bere gain hartutako konpromisoetako bat da indarkeria identifikatzeko, prebenitzeko eta desagerrarazten laguntzeko lan egitea, bereziki haurren, adinekoen eta emakumeen aurka. Hori dela eta, Gurutze Gorriak **"Adinekoei tratu ona ematea: tratu egokia sustatzea eta tratu txarren aurrean babestea"** izeneko proiektua jarri zuen abian duela lau urte, **tratu txarren bat jasan zuten edo jasateko arrisku berezia zuten adinekoei laguntzeko.**

Erakundeak Euskadin egiten dituen ekintzen osagarri gisa, 2019an, Emakunderekin eta Murgibe berdintasun-aholkularitzarekin batera, **'Sare Morea' proiektua jarri zuen abian, adinekoei, profesionaleri eta boluntarioei sentsibilizazio-saioak emateko, adineko emakumeen aurkako indarkeriak identifikatzeko eta horien irismena ezagutzeko.**

Tratu txarrei aurre egiteko proiektu horren barruan, Gurutze Gorriak, gainera, **"Nahiz eta ez jakin, tratu txarrak ere badira" kanpaina du**, adinekoekin bizikidetzarako esparru positiboa sustatzeko helburuarekin.

Ekimen honen helburua da, batez ere, adineko pertsonen ohiko ingurunea azpimarratzea, hala nola familia, zentro soziosanitarioak, egoitza-zentroak, erakundeak, etab. Kanpainak adineko pertsonekin sarritan izaten diren portaerak, egoerak eta mezuak ikusarazten ditu, askotan oharkabean edo nahi gabe, haien duintasunaren eta eskubideen aurka egiten baitute, hala nola, infantilizazioa; gehiegizko babesa, autonomia murriztea, abandonua, bakardadea edo zahartzearen eta zahartzaroaren irudi gutxiesgarri hori, batzuetan jendeari transmititzen zaiona.

Bestalde, Gurutze Gorriak badaki aliantzak oso garrantzitsuak direla tratu txarrak prebenitzeko, detektatzeko eta egoera horietan jarduteko. Hori dela eta, **2017az geroztik, lankidetzaz hitzarmen bat du Ertzaintzarekin, adinekoen eskubideak eta askatasunak babesteko eta defendatzeko koordinazioa eta lankidetzaz hobetzeko.**

Álvaro García Serrano

Marka eta Komunikazio autonomikoaren arduraduna

| +34 678 401 443

| comunicacionalava@cruzroja.es

| **Euskadi.** Portal de Castilla, 52. 01007 Vitoria-Gasteiz.

Gure idazkerak gure pentsamoldea islatzen du. Gurutze Gorria hizkuntza inklusiboaren alde.